

## **Abenduaren 29ko 102/1992 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duena.**

### **121. artikulua. Eragiketa bolumena zehaztea.** <sup>167</sup>

**Bat.** Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa bolumentzat hartuko da urte naturalean zehar subjektu pasiboak egindako ondasun entregan eta zerbitzu prestazioen zenbateko osoa, Zergaz salbuetsita daudenena barne. Kanpoan geldituko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera eta, hala badagokio, baliokidetasun errekaragua eta oroharreko prezioaren kontentsazioa.

Ondare enpresarial edo profesional baten osotasuna edo zati bat eskualdatzen denean, subjektu pasibo eskuratzailerak konputatu behar duen eragiketa bolumena haxe izango da: azken honek aurreko urte naturalean egindako eragiketa bolumenari eskualdatzailerak eskualdatutako ondare zatiari dagokionez epe berean egindako eragiketa bolumena gehitzetik ateratzen dena.

**Bi.** Eragiketak burutuztat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena gertatzen denean edo, hala badagokio, gertatu denean.

**Hiru.** Eragiketa bolumena zehazteko, ondorengo hauek ez dira kontuan hartuko:

1. Ondasun higiezinaren noizbehinkako entregak.
2. Foru dekretu honek 108. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskualdatzailerari dagokionez inbertsiotzat kalifikatzen diren ondasunen entregak.
3. Foru dekretu honek 20. artikuluan apartatutako 18. zenbakian aipatutako eragiketa finantzarioak, salbuespenik ez dutenak barne, eta, halaber, inbertsio urrez egindako eragiketa salbuetsiak, foru dekretu honen 140 bis artikuluan aipatzen direnak, beti ere batzuk eta besteak subjektu pasiboaren jarduera enpresarial edo profesionalean ohikoak ez direnean.

---

<sup>167</sup> 121. artikulua hau otsailaren 1eko 3/2000 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia 15/1999 Errege Lege-Dekretuan eta 54/1999 eta 55/1999 Legeetan jasota dauden zerga izaerako xedapen batzuetara egokitzen duenaren 1. artikuluan Hemeretzi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorekin.